

TOKIKOM

2021eko abendua | 220. zenbakia

# aitzar!

txoko idizkaria

Iñaki Bolumburu  
Sukaldari  
nomada



## Gure hezkuntza-eskaintza

### BATXILERGOA

- ZIENTZIAK Batxilergoa ('D' eredu)

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioa

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- Automatizazioa eta Robotika industrial
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Diseinua Fabrikazioa Mekanikoan
- Produkzioaren Programazioa
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola

POLITEKNIKA IKASTEGIA  
**TXORIERRI**  
S.COOP.

**Hartu zure  
etorkizunaren  
agintea**

**Kostuaren eta zerbitzuaren  
arteko erlazio egokiena**

**zorionak eta urte berri on!**



**"Egokitu eta garatu, bizitzarako prestatu"**

## Zatoz ezagutzera

Derion, Bizkaiko Parke Teknologikoaren ondoan gaude. Gure instalazioak, tailerrak eta laborategiak bisita ditzakezu.

[www.txorierri.net](http://www.txorierri.net)

Orientazio pertsonalizatua astearte arratsaldetan.  
Eskatu ordua telefonoz.

**94 403 40 60**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



POLITEKNIKA IKASTEGIA  
**TXORIERRI**  
S.COOP.

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa Ikastetxea

Untzaga Ibeia Kalea, 1 · 48160 DERIO · Tel.: 94 403 40 60 · [www.txorierri.net](http://www.txorierri.net)



**HEZKUNTZA KOOPERATIVA INTEGRALA**  
Familiak, Langileak, Enpresak eta Erakundeak  
zuzenean parte hartzen dute ikastolaren  
kudeaketan.

-  4 Eretxiak
-  5 Laburrak eta albisteak
-  10 Zamudioko Kamara Korala
-  12 Gurean izan da... Estitxu Fernandez, psikologoa
-  14 Gaztea eta... Mikel Eguía, kazetaria
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Oskar Gazteluk Unamuno saria irabazi du
-  20 Iñaki Bolumburu, sukaldaria
-  24 Euskararen Eguna
-  26 Gabonetako egitarauak
-  30 Emaus
-  31 Herbarioa
-  32 Teknologia... James Webb teleskopioa
-  33 Aikorrizketa... Gabon, Gabonetan
-  34 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa



18 Oskar Gazteluk Unamuno saria irabazi du



26 Gabonetako egitarauak



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



diruz lagundutako aldizkaria

**aikor!**  
txorierriko aldizkaria

**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa (Lagatu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora) 944 523 447 / 688 86 41 35 / 747 406 561 aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

**Kolaboratzaileak:** Igor Elordui, Bego Vicario, Euskaltzaleen Topagunea, Joanes Camara, Idoia Andres, Xabier Diaz eta Txiribita

**Zuzentzaileak:** Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Estitxu Perez (688 782 642)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 8.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik



IGOR ELORDUI

Euskara irakaslea eta kazetaria

**D**uela urte batzuetakoa da go-goeta, gure amak, eta guk berarekin, Gurutzetako ospitalean etxean baino denbora gehiago pasatu behar izaten zuen, genuen, sasoiak. Gurutzetako ospitalearen sarrerako leihatilatako batean "atención al cliente"-ren azpian "bezeroarentzako arreta" jartzen zuela-eta neure buruari galdetzen nion ea noiz utzi genion gaixo gaudenean gaixo izateari, edota gaixoen senitartekoak senitarteko izateari, eta hasi ginen izaten "bezero". Ez dakit oraindikarren berdin

## Todos nuestros agentes están ocupados, llame más tarde

dagoen idatzita leihatila hura zertarako den. Hizkuntzaren kudeaketa dela-eta, gogoan daukadan beste gauza bat da zer poztasun hartzen zuen amak, eta hartzen genuen guk, medikuak edota erizainak euskaraz artatzen zuten, gintuen, apurretan.

Eta urteak geroago horrekin akordatu naiz sarri akordatzen naiz, egia esan, amarekin ere sarri akordatzen naizenez gero. Mezu bat jaso dut mugikorrean, katalanez: "Igor, una persona que ha donat positiu de la COVID-19 t'ha declarat com a contacte estret. Per tal de tallar la cadena de transmissió i garantir la teva salut, accedeix amb el PIN Q... a l'enllaç: <https://covid19contactes.catsalut>". Inkesta bat bete dut. Bertan, izen-abizenak eta bestelako datuak eskatzeaz gain, lanean baja hartu behar dudala ala ez, eta arreta psikologikoa behar dudala ala ez galdetzen zidaten, besteak beste. Hurrengo egunean

Bartzelonatik deitu didate. Katalanez egin didate berba: galdetu didate ea sintomarik daukadan, ea Katalunian egin gura dudana PCR testa, ea segimendua egiterik gura dudana... Ezetz esan diet, sintomarik ez dudala eta, edozelan, Euskal Herrian egingo ditudala egin beharrekoak, bertan bizi naizelako. Eta *moltes gràcies*.

Osakidetzaren arretarako telefono zenbakira deitzen aritu naiz. Honezkerok, gehienok jakingo duzue zelan funtzionatzen duen: grabatutako ahots batek, euskaraz eta gaztelaniaz, zera adierazteko eskatzen dizu: batetik, zertarako deitzen duzun; eta, bestetik, euskaraz ala gaztelaniaz artatua izatea gura duzun. Zenbat bider deitu behar izan dudana? Ba, hogeita hamahiru bider! Ez da esajerazioa, gero! Datu zehatza da. Eta hogeita hamabi bider entzun behar izan dut hauxe: "Todos nuestros agentes están ocupados, llame más tarde".

**O**rain 70 urte dago gurekin, bere exotismoa eta edertasuna gurera ekarri nahian, gutako batzuk haien lorategietan ipintzen hasi zirenetik. Hala ere, landare inbaditzailea da, eta horrek esan nahi du temperatura eta hezetan egokiak topatzen dituenen jaun eta jabe egiten dela, urtero milioi bat hazi zabalduz, eta lurraldeko beste espezie guztiak itotzen dituela.

Gurean egoerarik erosena aurkitu du bizitzeko eta hazteko: Txorierriko errepide zaharretik, korridoretik zein trenbidetik lehen begiradan erraz sumatu dezakegu landare honen hedapena, zonalde handiak bete ditu eta. Normalean, sakan artean eta lanek birrindutako lur-ere-

## Panpako lezka



BEGO VICARIO

UPV-EHU-ko irakaslea

muetan zabaltzen hasten da, eta gero, astiro, baina gelditu gabe, gainerako landare-espezieak bizi diren eremuetara sartzen hasten da, ertzetatik bihotzeraino.

Landarea erazteko proba arrakastatsuak egin dira bertan zein Asturiasen eta Kantabrian, eta hartara badakigu zer egin behar den soluzio-bidean jartzeko: informazio-kanpainak egin, Aldundien laguntzak udalen bitartez bideratu eta hurrengo urteetako jarraipena lur-jabeekin adostu.

Esaten denez, edozein kolonizazio konturatu orduko berandu izaten da konponbidea bilatzeko, baina, agian, oraindik garaiz egon gintezke gure paisaia eta ekosistemak beren horretan izateko.

**tik tak**

EGUNEKO MENUA  
lehenengo platera  
bigarren platera  
postrea  
ogia  
edaria

9€

T: 94 454 55 55  
Bestorene 5, Behea  
48160 DERIO

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zabiztu Berriak  
Logopedia  
Podologia  
Krimasajlea

clínica dental  
**ZAINDUZ**  
horts klinika

Txorierriko errepidea, 9 - Lorja | Antsoa eraikina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

Arantza Amondarain Lasa  
Ginekologoa

Txorierriko errepidea, 5-4  
413. bulegoa  
48160 Derio

Telefonoa ala bestea  
94 454 44 98  
a.amondarain@euzkadi.net

## Skate park berria Derion

Azaroan, *skate park* berria inauguratu zuten Derion, Gazianeko kirol-gunean hain zuzen ere. Ekitaldian, besteak beste, Esther Apraiz Derioko alkateak eta herriko irristalari batzuek hartu zuten parte. Apraizen hitzetan, egitasmoa "udalerriko gazteen eskaeren ondorio da eta Derioko Umeen Kontseiluarekin izandako lankidetzari esker gauzatu da". Lanetan 50.000 euro ipini ditu udalak.

Guneak 350 metro koadro baino gehiago ditu eta bertan hainbat modulu jarri dira, zeinak klimatologiarekiko eta erabilera intentsiboarekiko erresistentzia handia duen material bat erabilita egin baitira. Era berean, leuntasun handia eskaintzen dute irristatzeko orduan. Deseinua ebolutiboa da eta, hortaz, gunea

handitu ahal da. Bestalde, 0,6 metrotik 1,9 metrora bitarteko altuerako mailak ditu eta hainbat diziplina praktikatu ahal dira han, hala nola *skatea*, *rolling-a*, *bmx-a* eta *scooting-a*. Bestalde, *quarter* arrapala bi daude, bata 1,9 metrokoa eta bestea 1,5 metrokoa, eta zenbait elementu pistaren erdialdean: 0,9 metroko *street spine* bat, 1,2 metroko *flybox quarter-bank* bat eta 0,6 metroko erraila duen *funbox-disaster* multzo bat. Azkenik, beste errail bi ipini dira: bata sinplea da, hiru metrokoa, eta bestea, bikoitza, sei metrokoa. Biek 0,4 metroko altuera dute, *streeteko* trikimailuak egiteko.

Apraizek adierazi zuenez, datorren urtean patinajeko master class bat antolatuko da, diziplina hori hobetu edo horretan hasi nahi duten herritarrentzat.



a: www.dazn.com

## Kerman Lejarragak eutsi dio gerrikoari

Kerman Lejarraga boxeolariak EBU (European Boxing Union) elkartearen Europa mailako superwelter kategoriako gerrikoa defendatu zuen abenduaren 4an, Bilbao Arena aretoan. Morgako Errebolberrak KOz irabazi zion Jack Faltley britainarrari bederatzigarren roundean. Guztira, Lejarragak 34 garaipen lortu ditu profesional mailan (horietako 26, KOz) eta bakarrik porrot bi. Gainera, laugarren aldiz lortu du Europako txapelketa eta horri esker da euskal boxeolariarik onena, izan ere, aurretik Paulino Uzcudunek, Urtainek eta Seninek hiru txapelketa irabazita zituzten.

Ez da oraindik jakinarazi Lejarragaren hurrengo urratsa zein izango den. Adituen iritziz, errebantxa eskainiko dio Dylan Charrat frantsesari, irailean irabazi zion boxeolariari. "Boxeoaren langilea naiz: deitzen didatenean, hara joango naiz borrokatzera, ez dut beste aukerarik", esan zuen Lejarragak borroka bukatuta.



**nexis.es**

Zuntza **19,90 €-tik** Hilean BEZ barne

Zuntza 100 Mb - Altaren kuota 152 € bez barne edo 33,00 € / hilean bez barne lehenengo urtean

INFORMAZIO BILA ETORTZEN BAZARA, OPARITXO BAT JASOKO DUZU KONTRATATZEN BADUZU, OPARIA JASOKO DUZU MOZTU IRAGARKI HAU ETA HURBILDU ZAITEZ SONDIKARA, ITURRI GANE 1ERA

946941000 / nexis@nexis.es

Euskal operadore alternatiboa

**sarraila-denda Txorierri**  
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNAN

946 038 663  
625 100 800  
info@sarrajerriatxorierri.com  
www.sarrajerriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate  
Urkiola, 4 lortza  
48160 Denia

**elekma**  
URRIATZAREN BAT DUTEN ETXI TRINERA ELEKTRIKO BEARIRAK TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXAKAK

lehenengo markak • Preziozko onakak  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**

Txorien etorbidea, 25-3.N. 48180 Leku  
T: 944 539 232  
www.elekma.es

## Bonu-kanpaina berria Zamudion

Merkataritza- eta ostalaritza-bonuak atera dituzte berriro Zamudion. Bonuak abenduaren 31ra arte erosi ahalko dira [www.zamudio.eus](http://www.zamudio.eus) webgunean edo AdiZamudio aplikazioa erabilita. Bonu bakoitza 20 euroren truke eskuratu ahalko da, baina bere benetako balioa 35 eurokoa izango da. Erosketak urtarrilaren 13tik maiatzaren 4ra arte egin ahalko dira eta herritar bakoitzak gehienez bonu bi erosi ahalko ditu mota bakoitzeko.



## % 100eko hobaria, 25 urte baino gehiagoko ibilgailuetarako, Loiu

Josu Andoni Begoña Loiuco alkateak bere webgunean jakitera eman duenez, udal-ordenantza aldatu dute eta hori dela-eta % 100eko hobaria ezarriko diete herriko ibilgailu historikoei edo gutxienez 25 urteko antzinasuna dutenei. Hobaria ezarri ahal izateko, kontuan hartuko dira egite-data, lehen matrikulazioa edo ibilgailua egiteari utzi zitzaion data. Neurria urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.



## Juan Luis Goikoetxea, ohorezko euskaltzaina

Euskaltzaindiak Osoko bilkura egin zuen azaroaren 31n, Iruñan. Bertan ohorezko euskaltzain berriak izendatu zituen; Juan Luis Goikoetxea derioztarra, haien artean. Orotara 26 ohorezko eta 19 urgazle berri izendatu ziren.

“Ohorea da, hainbat urtetan lantaldean egin dudana onarpena da eta. Euskaltzaindiak 1968an onartu zuen euskara batua, eta nire belaunaldikoak lehenak izan ginen hori irakasten; hasieran, Bilboko Zazpi Kaleetan, eta gero, Bizkaia osoan: Bermeo, Ondarroa... Gazteak ginen eta geuk osatu genuen euskara ikasteko metodologia. Baina garai hartan, 1969an, frankismoan geunden eta egoera erabat desberdina zen: ez zegoen Eusko

Jaurlaritzarik, Euskaltzaindiaren egoitza ez zegoen Plaza Barrian, Erriberan baizik, ezin zen hamar laguneko bilerarik egin...”, esan digu Goikoetxeak.

Goiketxea (Mungia, 1947) euskaltzain urgazle izendatu zuten 1983an. Harrezkero, hainbat batzordetan hartu du parte: Irakaslegoa, Oinarrizko Euskara, Azkue Biblioteka, Euskalkien lantaldea... Era berean, zenbait idazlan egin ditu: *Euskalkia eta hezkuntza*, *Euskaldunaren anekdotak*... Goikoetxea doktorea da pedagogian (UPV-EHU) eta katedraduna izan zen Derioko Txorierriko Institutuan, erretiroa hartu zuen arte. Euskaltzale amorratua da, Bostak Bat lantaldeko kidea eta Mendebalde Kultur Alkarteko buru ohia.

**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburunbata:  
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea  
Zamudio  
**94 4520419**

**ELORRIETA**  
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behea Derio 48160  
94 454 03 86

**639 57 98 48 - 639 58 25 47**

**ArtileArtean**

Mungialde. 4 - DERIO  
946 240 343 / 665 702 751  
[www.artileartean.com](http://www.artileartean.com)

## Loiuk ia bost milioi euroko aurrekontuak onartu ditu 2022rako

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, udal osoko bilkurak aho batez onartu ditu 2022ko aurrekontuak: ia bost milioi euro. Aurtengo ekitaldiko aurrekontuekin alderatuta, datorren urtekoek % 14ko igoera izango dute eta inozkorik handienak izango dira. "Susperraldi ekonomikoak xedatu ditu aurrekontuak eta pertsonak daude horien erdigunean. Loiu berritzailea, dinamikoa eta ekintzailea sustatu nahi dugu, berdintasunaren eta bizikidetzaren balioetan oinarrituta eta bere identitatean sustraituta".

Aurrekontuen helburua da udalerria eraldatzea eta hobetzea, eta euren baitan 23 inbertsio egingo dira. Inbertsio horien artean daude udal-igerilekuak, auzoetako kirol- eta aisialdi-instalazioak, saneamendu-sareak hobetzea, kultura-

eta jai-ekintzak berpiztea, bidegorriaren laugarren fasea, Erdi Aroko gaztelua Zabalotxen, hondakinak batzeko zerbitzu berria, tokiko enpleguaren plana eta elkartei diru-laguntza ematea.

Begoñaren hitzetan, udalaren gobernu-taldeak kudeaketa egokia egin du eta, hortaz, "udal-kutxa sendoak izanik aurre egin genion pandemiari, eta, orain, horren osteko egoerari ere egingo diogu aurre". Era berean, adierazi du udalaren lehen tasuna herritarren beharrazanez erantzutea dela eta horretarako diru-laguntza eta enplegu-plan gehiago egongo direla. Horri lotuta, esan du Denontzat elkartearen diru-laguntza % 33 handituko dela. Elkarre horrek herriko elikagaien bankua kudeatzen du eta, Begoñak azaldu moduan, eskari gehiago jasotzen ari da.



### Loiuk Erdi Aroko gaztelua eraikiko du txikiarentzat

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, Erdi Aroko gaztelua eraikiko da herrian. Gaztelua umeentzako jolas-gunea izango da eta, Begoñaren esanetan, "Loiuko parke tematikoa osatuko du gaur egungo tirolinarekin eta egingo den Spashapark-arekin batera". Aurreikuspenen arabera, eraikitze-lanak hiru hilabeteren buruan amaitu litezke.

Jolas-gune berria lau urtetik 14 urtera bitarteko umeentzat da. Orotara 270 metro koadro izango ditu, eta gehieneko altuera ia hiru metrokoa izango da. Besteak beste, atal hauek edukiko ditu: zabalik egongo diren hiru txirrista, txirrista itxi bat, egurrezko zubia eta eskailerak, soka-sarea, suhiltzaileen barrak eta gora egiteko zenbait elementu. Begoñak azaldu moduan, egitasmoaren helburua da udalerria dinamizatzea, "auzotako guztiak erakartzeko, baita inguruko herrietako bisitariak ere".



**Carrefour**  
express

ORDUTEGIA  
Astelchenetik ostiralera arte  
9:00-14:30 / 17:00-20:30  
Larunbatean  
9:00-14:30

Pago kalea, 5  
48170 ZAMUDIO

**ADARVE KAFETEGIA**

Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel.: 94 608 95 31

**ZAMUDIO**  
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
josuastorkiza@gmail.com

**KAFETEGIA**  
**IAZI**  
**JATETKEA**

Jata kalea, 2 - DERIO  
Tel.: 944 54 29 56

**aldekone**  
hortz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

Urbe 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak zentro bakar batean  
-Aurrekontua doan  
-Especialitatea: umeak

**ASTIKENEMOTOR**  
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781



## Lezamak bat egin du 'Inspirarte' proiektuarekin

Egitasmoaren helburua da euskal literaturarako zaletasuna bultzatzea eta euskal idazleen lana ikusgai egitea. Horretarako, euskal literaturako aipuak idatziko dira Bizkaiko hainbat herritako kaleetan. Esaldi bakoitzak QR kode bat dauka, erabiltzaileak ekimenaren webgunera jo dezan. Bertan, informazio gehiago topatuko du egileari eta lanari buruz. Lezaman, lau lekutan margoztu dituzte esaldiak: Ludoteka (Unai Elorriaga), Gaztegunea (Irati Goikoetxea), Uribarri Topalekua (Idurre Eskisabel) eta udaletxe horria bat (Mikel Zarate).

## Indarkeria matxistaren kontrako esaldiak, Lezamako zebra-bideetan

Esaldi Laburren Lehiaketa antolatu zuen lehen aldiz Lezamako Berdintasun Kontseiluak. Lehiaketaren helburua izan zen indarkeriaren matxistari eta homofoboari aurre egiteko euskarazko esaldi originalak idaztea, eta lezamarrek orotara 39 esaldi aurkeztu zituzten. Esaldi horietako bederatzia aukeratu, eta herriko zebra-guneetan idatziko dira.

Aukeraturako esaldien artean, hurrengo hauek daude: "Emakumeen askatasuna, jendartearen heldutasuna";

"Beldurra ez dadin zure itzala izan" eta "Gogoratu: gertatzen den guztian konplize izan ahal zara". Esaldiak, besteak beste, idatziko dira eskolaren sarrerako zebra-bidean, udaletxearen aurreko eta atzeko zebra-bideetan eta farmaziaren aurrekoan. Antolotzaileek eskerrak eman dizkiete parte-hartzaileei, "gizarte berdinezalearen alde borrokatzeagatik eta indarkeria matxista eta homofobia arbuiatzeagatik". Bestalde, Lezamako Udalak adierazi du ahaleginduko dela egitasmoa ahalik eta arinen garatzen.



**auzoKide**  
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, beheka B 48150 SONDIKA **634 410 470**  
auzokidefincas@gmail.com

**LEJARRENE JATETXEA**  
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

**Enaitz**  
TAXI

Ogitartekoak 94 455 42 15  
Anoak Garaioltza, 74  
Plater konbinatuak 48196 Lezama

**Ale-ahaindegia**  
M<sup>a</sup> Antonia Llodio

Txorierriko etorbidea, 6 Tel.: 94 452 02 70 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**RADIO TAXI FEMADE** Zure taxi, Teorierrikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:  
[www.taxisaeropuertobilbao.com](http://www.taxisaeropuertobilbao.com)

**DESKARGATU APP-A**  
**TAXI FEMADE**



## Puppy laguntza-txakurra hezteko dirua batu dute



Puppy labrador arrazako bost hilabete-ko txakur emea da eta, apur bat handiagoa denean, hezten hasiko dira Liher eta Haizea Zamudioko anai-arreben laguntza-txakur bihurtu dadin. Umeek autismoaren espektroko nahasmendua dute eta txakurtxoak lagunduko die etxean zein kalean moldatzen. Txakurra hezteak 18.322 euro balio du eta zenbait egitasmo ipini dira martxan dirua batzeko. Joana Otero anai-arreben amak jakinarazi duenez, diru guztia batu dute azaroan.

Oso pozik eta eskertuta azaldu da Otero. Txakurra hezteko dirua batzeko hiru urteko epea zutela esan zieten, baina dirua uste baino askoz arinago lortu dute. "Kanpaina maitatzaren 31n ipini genuen martxan eta joan den hilabetean,

azaroaren 24an, lortu genuen diru-kantitate osoa biltzea. Hori jendeak erakutsitako eskuzabaltasunagatik izan da; eta euren babesagatik. Ezin sinetsirik nabili...". Kanpaina martxan ipini zenetik, zenbait ekintza egin dira dirua batzeko. Zamudion, esterako, azoka solidarioa antolatu zen eta herritarrek ere euren diru-ekarpena egin dute.

Oteroren esanetan, egitasmoaren webguneak <https://proyectopuppy.obrasocialschadia.com/> martxan jarraituko du herritarrek ikus dezaten Puppyren trebakuntza zertan den. Era berean, Oterok lanean segituko du egoera antzekoa duten beste familia batzuei laguntzeko. Ischadia Gizarte Ekintzak trebatuko du Puppy.

### WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

**Karmele Artetxe** da abenduko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birezako bazkaria jasoko du saritzat.

WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



- Plater konbinatuak  
- Ogitartekoak  
- Kaxolak

**BIZKARGI KAFETEGIA**  
Euskal Herria Kalea  
48160 - Derio (Bizkaia)  
94 454 16 55

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNCIALDE ETORBIDEA, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32

Jarrai izaguzi Facebook-en

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-izariak, erokorren  
Azuloen konbinatuak  
Mantuesteko garbi-izariak  
Bulegoak eta lokalak  
Otinu amaierako garbitutak  
Bastutarak  
Zahar bilaketa

Besside Plaza, 1 - B\* Aldekone  
48160 DERIO (Bizkaia)  
loregarbi@euskalmet.net

Tel: 94 406 49 92  
656 712 443  
Fax: 94 406 49 93

**BASALBEITIKO TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina  
Denominazioa de euzko

Goitioitza euzoa, 37  
(LEZAMA)  
94 455 61 46



### Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS  
48196 LEZAMA  
☎ 94 455 60 16  
e-mail: lezama@fcae.org  
Bazkideak: 144

*Pentsu  
naturalak*

# "Harro nago abeslariez"

IRATXE GEZURAGA | Zamudioko Kamara Koralaren zuzendaria

Zamudioko Kamara Koralak *Gabonak kantari* lana aurkeztuko du abenduaren 28an, 19:00etan, San Martin elizan. Bederatzi abestik osatutako lana da eta kantak hiru hizkuntzatan abestu dituzte: euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz. Hala ere, Iratxe Gezuraga abesbatzaren zuzendariak azaldu digunez, gehienbat guretzat ezagunak diren Gabon-kantak jaso dituzte, "hau da, Euskal Herrian ohituraz abesten direnak eta gaur egungo konpositore euskaldunek sortutakoak".

a: ZKK

Gezuragaren esanetan, garrantzitsua eta zaila da halako proiektu baterako aukeraketa egokia egitea. "CDan euskal Gabon-kantek pisu handia duten arren, pentsatu nuen interesgarria eta dibertigarria izango litzatekeela ohiko kantei gaurkotasun-kutsua ematea, moldaketak eginez eta musika-estilo ezberdinekin jolastuz. Horrela, espero dut entzuleek disfrutatzea *Dringilin Dron* eta *Olentzero* abesti ezagunetarako egindako ahots-moldaketa alaia eta pianorako konposatutakoa uztartzearen emaitzarekin. Bestalde, Argentinako Gabon-kanta bat da gaztelaniazko abesti bakarra, eta ingelesezko kantei dagokienez, bata da aita Madina oñatiarrak Estatu Batuetan sortutakoa eta bestea da John Rutterren Gabon-kanta; koruko kideei asko gustatzen zaie azken hori, eta bai ala bai abestu behar genuen".

Kanta batzuek, *Hator, hator* kasu, haurtzarora eraman dituzte koruko kideak; eta beste batzuek, *Gau iluna* esaterako, bakea eta lasaitasuna ekarri dizkiete. "Niretzat kanta bereziak dira neuk sortutako moldaketenak eta semeak, Berartek, pianoz konposatutakoak. Kontuan hartu behar da proiektua etxean egotera derrihortu gintuztenean hasi zela. Batzuek txalo egiten zuten, eta beste batzuek, musika jo; guk musika sortu genuen elkarlanean. Ez ditut momentu horiek ahaztuko: elkarrekin ederto pasatu genuen, egun osoan sorkuntza-lanetan eta musikaz gozatzen". Gezuragak gogora ekarri ditu konfinamenduaren une latzak. "Abesbatzok isilarazi gintuzten eta ezin ginen elkartu gehien gustatzen zitzaiguna egiteko. Baina nik oso argi nuen ezinez-

koa zela gu isilaraztea eta abestea debekatzea; hortaz, entseguak online egitea proposatu nien neskei. Hasieran itzela izan zen: soinua ez zen abiadura berean heldzen, sarearen arazoak, batzuk soinu barik geratzen ziren... Egokituz joan ginen. Classroom plataforma erabilia, ahots bakoitza grabatuta bidaltzen nien, ahots tekniko banaka lantzen genuen, errepertorioa txandaka ikasi, ahotsetara landu...". Bideokliparen bat ere grabatu zuten, eta herriko jaietan bertualki parte

hartu. "Iazko urrian konturatu ginen ezin izango genituela ohiko ekintzak egin -Olentzero egunean baserriz baserri abestea, udaberriko kontzertuak, elkartrukeak...- eta pentsatu nuen ezin ginela ilusiorik gabe egon eta proiektu berria martxan jarri behar genuela: *Gabonak kantari* lana grabatu".

Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen eta Eusko Jaurlaritzaren egitasmoa aurkeztu, izapideak bete eta baimena lortu ondoren, Kamara Koralaren kideak el-

"Pentsatu nuen ezin ginela ilusiorik gabe egon eta proiektu berria martxan jarri behar genuela"

"Gustatuko litzaidake jendeak Gabon-kantak entzun eta etxean abestea, eta euren oroimenean gelditzea"



kartzen hasi ziren, lana grabatzeko uea hurbil zegoen eta. "Poz-pozik geunden guztiok: ondo entzuten genioen elkarri, seguruago sentitzen ginen kantatzeko orduan... Azkenean, aurtengo maiatzaren 19an eta ekainaren 5ean grabatu genuen Zamudioko San Martin elizan. Instrumentuak, bestetik, Xabi Aburruzagaren estudioan grabatu dira". Emaizta izan da abesbatzak gogotsu eta ahalegin handiz egindako lana. "Ez dugu erraztasunik izan: elkartzea eta abestea debekatu ziguten, entseguak gure arteko distantziari eutsita eta maskara jantzita egin ditugu eta horrek ekarri digu, besteak beste, aieririk eza, ahotsaren bolumen irreal... Nolanahi ere, helburua izan da koruko kideek momentu latzetan elkarrekin abesten jarraitzea eta, jakina, oso pozik gaude lortutako emaitzarekin. Ni harro nago abeslariez, guztiak egindako ahaleginagatik eta erakutsitako gogoagatik".

#### Sendagarria

Nahiz eta ikasteko prozesua gogorra izan, Gezuragaren esanetan, merezi izan du abestek ekartzen duen onuragatik.

## Sasoi onean

Zamudioko Kamara Korala bi abesbatzek osatzen dute: nagusien abesbatzak eta gazteenak. Guztira 18 pertsonak hartu dute parte *Gabonak kantari* lanaren grabazioan. "Kamara Korala sasoi onean dago. 2016an umeen eta gazteen abesbatza eratu genuen eta haiek ere lan bikaina egiten ari dira. Pozik eta gogotsu dabilta sortzen diren proiektuekin. Datorren urterako berriro ere hainbat kontzertu martxan ditugu jada". Zamudiokoaz gainera, beste musika-saio bi izango dituzte Txorierrin, Gabonetan: abenduaren 30ean, 19:00etan, Derioko San Isidro elizan; eta urtarrilaren 2an, 19:00etan, Baserri Antzokian. "Horietan CDan abestutakoaz disfrutatzen jarraitzeko aukera izango dute hara hurbiltzen direnek".

"Kantua terapia da. Ikerketen arabera, abesten dugunean, gorputzak endorfinak sortzen ditu eta ardurak albo batera uzten ditugu, gogoia gure baitan ipintzeko. Ondo sentitzen gara, baikor, eta barne-energia lantzen dugu, arnasketa eta kontzentrazioa. Lasaitzen laguntzen digu eta talde-lana eta harremanak indartzen ditu. Musikak sentimenduak eragiten ditu, eta sententzioak helarazi; sendatu egiten gaitu. Abesbatzan hori guztia bizi izaten dugu. Isiltasunetik abiatuta eta artistiko bihurtu nahian, gure gorputzekin sortzen ditugun soinuekin jolasten gara interpretazio egoia sortzeko".

*Gabonak kantari* CDa aurkezpenaren egunean bertan eskuratu ahal izango da. Ez da salgai ipiniko, baina Kamara Koralarekin harremanetan jarrita ere egongo da lana lortzeko aukera. "1987tik hona Olentzero Egunean abestu ohi ditugun kanta batzuk ere bildu ditugu, entzuleek memorian gorde ditzaten. Gustatuko litzaidake jendeak Gabon-kantak entzun eta etxean abestea, gurekin disfrutatzea eta, aldi berean, abestiak euren oroimenean gelditzea".

**betiON**  
GARA

10 urte zure ondoan

betiON, Euskadiko Teleaguntza Zerbitzu  
Publikoaren medaila gorriak segurtasuna eta  
lasaitasuna eskaintzen digu eguneko 24 orduetan.

Argibide gehiago hemen:  
[www.euskadi.eus/betion](http://www.euskadi.eus/betion)  
900 851 600  
012 Zuzenean

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Xabier Lapitz: Kazetaria  
Itziar Aizpuru: Aktorea

# "Indarkeria obstetrikoa guztiz

ESTITXU FERNANDEZ | buruko osasun perinatalean aditua

Indarkeria obstetrikoa da haurdunaldian, erditzean edo erditze ostean emakumeek pairatzen dituzten tratu txarrak edo jardute desagokiak. Indarkeria-mota isila da, isilena, beharbada. Psikologoa izateaz gainera, Estitxu Fernandez aditua da buruko osasun perinatalean eta, Zutunik! Elkarte feministak gonbidatuta, azaroan hitzaldia egin zuen Larrabetzun. Bertan, indarkeria obstetrikoren inguruko gakoak izan zituen hizpide.

Fernandezekin hitz egiteko aukera izan dugu. Azaldu digunez, indarkeria-mota bi daude indarkeria obstetrikoren baitan: fisikoa eta psikologikoa. "Indarkeria fisikoaren barruan sartu daitezke gehiegizko medikalizazioa eta prozesu naturaleen patologizazioa, esate betarako, perineoa sistematikoki moztea, beharrezkoa ez denean zesareak egitea, Hamilton maniobra, poltsa amniotikoa errutinaz apurtzea... Baita ama eta umea arrazoirik gabe banatzea ere. Bestalde, pandemia dela-eta dezente gertatu da emakumea bikotekidearekin edo konfiantzako pertsonarekin egon ezin izatea, eta badakigu hori zein inportantea den". Jardute zaharkituak ere aipatu ditu. "Adibidez, derrigorrean etzanda erditu behar izatea eta Kristeller maniobra; hau da, emakumearen gainean jarri eta besoa edo ukondoa erabilia umetokiaren gainean bultzatzea, umea atera dadin, ondorio kaltegarriak ekartzen dituen arren".

Indarkeria psikologikoari lotuta, aipu izan ditu, besteak beste, emakumearen autonomia-printzipioa ez errespetatzea, egiten ari zaionari buruzko informaziorik ez ematea eta bere onespenerik gabe jardutea. "Emakumearen erabakiak ez errespetatzea ere bada indarkeria. Esate baterako, emakumeak eskubidea du esateko ez duela nahi erditzea abiaraztea, eta batzuetan hori bere nahiaren kontra egiten da. Era berean, bortizkeria da

emakumearen intimitatearen eta pribatasunaren aurka jokatzeko, jendea erditze-gela nor den esan gabe sartzea kasu, eta tratu txarrak eta iraingarriak".

Bere esanetan, azaldutako indarkeria horietaz gainera, indarkeria sinbolikoa ere bada. "Botere-harremana dago profesionalaren eta emakumearen artean, eta profesionala bera ere ez da konturatzen

bortizkeria erabiltzen ari dela. Guztiz normalizatuta dagoen tratua da: horrela ikasi du eta horrela egiten du. Eta, gainera, arrunta da emakumeak pentsatzea bere hobe beharrez hori guztia egin diezaioketela. Oso zaila da konturatzea hor indarkeria dagoela". Amaren eta umearen osasun fisikoan eta mentalean eragiten du. "Ondorio psikologikoak eta sozialak ditu



*"Profesionala bera ere ez da konturatzen bortizkeria obstetrikoa erabiltzen ari dela"*

# normalizatuta dago"

eta harremanetan du eragina, amaren eta umearen buruko osasunean... Era berean, perineoko lesio batek edoskitzean eragin dezake, sexu-harremanetan, umearekiko harremanetan... Erdiondoko ondorioak gutxitan diagnostikatu eta tratatzen dira; emakumeak bakardadean bizi ditu".

Gainera, aurreko lerroetan esandako jarduteak oso momentu zaurgarri batean egiten dira. "Garrantzitsua da ulertzea zer den erditze fisiologiko bat. Esku hartu gabeko erditze batean, emakumea oso momentu berezian dago. Bere garuna erabat eraldatu da haurdunaldian eta bereziki erditzean eta, hortaz, sistema linbikoa, emozioena eta zentzumenena oso anplifikatuta daude. Ondorioz, zentzumenen bidez ailegatzen zaion informazio guztia ere oso anplifikatuta dago eta

## Hurbiletik

Estitxu Fernandez Maritxalar (Lesaka, Nafarroa, 1975). Psikologoa da, eta buruko osasun perinatalean aditua. Gaztetik izan du emakumearengan eta bere inguruko gaietan interesa, eta indarkeria obstetrikoa pairatu duten emakumeen testigantzak jasotzen dabil gaur egun. *Gure erditzearen jabe* liburuaren egilea da eta bertan erditze kontzientek garaiotan duen garrantzia azpimarratzen du. Informatuta egotea eta bizi duen egoeraz jabetzea erditzera doan emakumearentzat zein inportantea den azaldu du liburu horretan; hala ere, eta indarkeria obstetrikoi dagokionez, argi utzi du ez dela emakumearen ardura nola artatzen duten: "Berak ez du obstetrizian master bat egin behar". Bestalde, bertsolaritzan ibilia da eta orain dela urte batzuk telebistan ikusi genuen kazetari-lanetan. Beste batzuen artean, *Sorginen laratza*, *Bertatik bertara*, *Kirolez kirol* eta *Biztanleak* telebista-saiok aurkeztu zituen ETBn, eta *Tartaria* irratia, Euskadi Irratian.

gertatzen dena memorian gelditzen da grabatuta. Horrek amaren erditze ondoko ahalduntzean eragiten du: errespetatu bazaituzte, oso ahaldunduta atera zaitezke erditzetik, baina erditze traumatikoa izan bada, berriz, txikituta".

### Desioak errespetatu

Fernandezen aburuz, emakumeak ez du inongo ardurarik eragiten zaion indarkeria obstetrikotan. "Emakumea ondo tratatu behar da haurdunaldian zein erditzean eta erditze ondoan. Evidentzia zientifikoek erakusten dituzten jardutei jarraitu behar zaie, eta bereziki emakumeen desioak errespetatu behar dira, beste edozein praktika mediko-ospitalariorik moduan eskubidea baitugu gure nahiak errespetatu daitezen. Momentua eta egoera muturreraino errespetatu beharko liriateke". Indarkeria obstetrikoi aurre egiteko, ezinbestekotzat jotzen du osasun-profesionalak hezte. "Nolanahi ere, euren lan-baldintzak zeintzuk diren ere aztertu beharko luke, eta euren buruko osasunari ere arreta handiagoa eskaintzea. Osasun-langileak ere zaindu beharko liriateke, eta trebatu, emakumearentzat hain berezia den egoera ulertu dezaten".

Azkenik, azpimarratu du gizarte patriarkal batean bizi garela eta ez dagoela konfiantzarik emakumearen eta umearen gorputzean. "Osasun-paradigma mekanizista ere badugu: ospitalea da fabrika, emakumea, makina, eta umea, produktua. Emakumeak ez du erabakitze aukerarik, objektua balitz bezala tratatzen da eta harekin behar den guztia egiten da umea ondo atera dadin". Osasun-paradigma horretatik aldentzeko ahaleginetan gabiltza, apurka-apurka. Izan ere, nahiz eta indarkeria obstetrikoa bortizkeria-motarik isilena den, gero eta gehiago hitz egiten da berari buruz.

*"Errespetatu bazaituzte,  
oso ahaldunduta atera  
zaitezke erditzetik;  
erditze traumatikoa  
izan bada, txikituta"*

Centro Dental  
**Txorierri**

Rocío Astorkia Bordegaray  
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella  
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández  
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika  
(geltoki aurrean)  
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885  
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

**TOLDOS TXORIERRI**  
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak  
Sareak  
Eguzki-ohialak  
Alokatzeko lonak

TORRELARRAGOITI IND. P2  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 12 58  
Faxa: 94 452 07 44  
Gasolindegia ondoan

Gabonetan be  
euskeraz bizi

ZORIONAK

LAGATZU  
ZAMUDIOKO  
EUSKERA  
ALFKARTEA  
www.lagatzu.org

zamudion  
euskeraz?  
hoba ez!

# "Gure lanak merezi du: ahotsa ematen diogu behar duenari"

t/a: Gaizka Eguzkitza

## Zergatik ikasi kazetaritza?

Txikitatik gustatzen zait telebista. Nerabe nintzanean, *reality-show* saioak eta prentsa arrosa gustuko nituen. Zorionez, heldu naiz, eta gaur egun ez zaizkit batere entretenigarriak iruditzen (kar, kar). Hamabost urte nituela albistegiak ikusten nituen eta argi nuen albistegia aurkeztu nahi nuela.

## Gaur egun, *En jake* saioan zabiltza erreportari...

Bai. Nik batez ere gizarte-gaiak lan-tzen ditut. Gainera, politika, eta oro har, gaurkotasuna jorratzen dugu. Bitxia da, nik lehen politikaz ezer ez nekielako. Master ikaragarria da bertan lan egitea.

## Leioan karrera bukatu eta berehala hasi zinen lanean. Zein da zure ibil bidea?

Batez ere telebistan egin dut lan: praktikak Telecinco katean egin nituen eta gero kontratatu ninduten. Hasieran, garrantzirik gabeko lanak egiten dituzu, baina nagusien konfiantza lortzen duzunean, zuzenean agertzeko aukera ematen dizute. Gogoan dut agertu nintzen lehenengo aldia, Pedro Piquerasen saioan. Halaber, EFE agentzian eta Antena 3 eta Telemadrid kateetan ere egin dut lan.

## Ez diozu lan egiteari utzi. Zoriontsu sentitzen zara?

Neurri batean, bai, zorte ona behar-beharrezkoa baita, baina gogor egin dut lan nagoen lekura heltzeko. Inoiz ez diot ezeri ezetz esan, hau da, lan egiteko jarrera ona erakutsi dut beti eta horri esker lan egiteko aukera izan dut. Adibidez, bakarrik joan nintzen Aranda de Duero herrira albiste baten berri ematera;

*"Lekukoek esaten didatena esango dut. Kazetariok independenteak izan behar dugu"*

## MIKEL EGUÍA | kazetaria

Gaztea izan arren, ibilbide oparoa du Mikel Eguía kazetariak. Gaur egun, derioztarrak pil-pileko gaien berri ematen digu ETB katearen *En jake* saioan. Eguíak kazetaritza maite du, baina beste pasio bat ere badu: dantza.

Bustamante abeslariaren alabaren bila joan nintzen Kantabria aldera; bekaduna izanda, 12 ordu eman dut lanean, lau orduko kontratua izan arren...

## Beti erreportari ibili zara. Lan polita bezain gogorra, ezta?

Bai. *En jake* saioan, erredaktore sartu nintzen, bulegotik atera barik. Baina Zal-dibarren zabortegia eraitsi zenean, kaleratzea eskatu zidaten eta horrela

jarraitzen dut. Lana gustatzen zait, errealitatea zuzenean ikusten dudalako, eta hori erredakziotik ez duzu ikusten. Esate baterako, gaur COVID ziurtagiriari buruzko galderak egin dizkiet herritarrei, kaletik. Eta nork bere iritzia eman dit. Jendeak berak, eta ez Eusko Jaurlaritzak edo beste komunikabideren batek, esan dit zer uste duen. Lana bada gogorra, bai. Jendea nazkatuta dago komunikabideekin eta



niri irainak esan dizkidate kalean lanean nengoela. Hala ere, gure lanak merezi egiten du: ahotsa ematen diogu behar duenari. Kaleko kazetaritza gustatzen zait. Politikariek nahikotxo egiten dute berba; jendearen txanda da.

#### Askotan autozentsuratzzen zara?

Ahaleginak egiten ditut horrelakorik ez gertatzeko. Eta horregatik nagusiek errietaren bat egin didate. Komunikabide guztiek dituzte arauak eta horiek errespetatu egiten ditut. Baina nik lekukoek eta elkarrizketatuek esaten didatena esango dut. Eta hori norbait ez bazaio gustatzen, hor konpon. Zorionez, lasai egiten dut lo gauean. Kazetariok independienteak izan behar dugu.

#### Zelan dago ogibidea?

Oso txarto dago: soldata eskasak, aldi baterako kontratuak, lantaldeak gero eta txikiagoak dira, nahiz eta lana gero eta handiagoa izan, lana ez da behar bezala aintzat hartzen... Adibidez, lehengo astean, Telemadrdek itxi egin zuen Bilboko egoitza. Eta beste adibide bat: nik ez dut kameraririk, nik nire burua grabatzen dut telefono batekin.

## Goizean, kazetaria; arrastian, dantzaria

Mikel Eguía Ariasek (Derio, 1994) pasio bi ditu: kazetaritza eta dantza. Eta oso "zorionsua" da biak uztartu ahal izateagatik. "Goizean, kazetaria naiz eta arratsaldean, dantzaria. Aukeratu behar izatekotan, uste dut dantzaren alde egingo nukeela. Uda honetan lan-ekaintza egin didate, baina uko egin diot, dantza utzi behar nuelako", esan digu Eguía. Guztira, hamabi urte daramatza dantza egiten eta gaur egun kategoriarik altuenean –nazioarteko A maila– jokatzeko txapelketak. "Lehen ezin genuen lehia burutik kendu; gaur egun, aldiz, pasio egiten dugu emaitzekin".

Jarreraren aldaketaz gainera, Mikel dantza latindarretan (sanba, boleroa, pasodoblea, txa-txa-txa eta jive-a) espezializatu da. "Kirol dantzan, hamar dantza daude, bost standar eta beste



bost latindar. Eta goi-mailan, bata edo bestea aukeratu behar duzu, hamarrak ezin direlako menperatu". Eguía Sara Macarrilla derioztarrarekin egiten du dantza. "Hamar urte daramatzagu elkarrekin, hezur eta mami gara; primeran ezagutzen eta ulertzen dugu elkar. Eta gure harreman estua aditzera ematen dugu pistak: herrikideak gara, lagunak, herri berean ematen dugu uda... Arrebatzat hartzen dut".



OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5. behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

TABERNA  
**GAZTE**  
Eguneko menuak  
Ospakizunak

Aretrialde, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

ZAMUDION BERTAN GAUDE

**B**AIRES  
Higienizazioa eta ingurumen-garbiketa

Alberto Gainza:  
691606715

contacto@baires.es  
www.baires.es

**Aliprox**

Ondo para jaietan!

INES  
JANARI-DENDA

Iturrikoetxea, 3  
48195 Larrabetzu  
T: 94 455 84 33

# Plazan denok daukagu lekua: kirol egokitua eta inklusiboa

Azaroaren 20an, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Plaza Inklusiboaren lehenengo jardunaldia antolatu zuen Derion



Horretarako, Haszten elkartearen laguntza izan dugu; elkarte horrek, aniztasun funtzionala duten Bizkaiko haurren kolektiboan kirola bultzatzen du, beraz, euren helburu nagusia dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, kirolaren eta jarduera fisiko inklusiboaren bidez. Elkarte horrekin hainbat jarduera egiten aritu gara urtean



zehar, hala nola, sentsibilizazio saioak eskoletan, edo aniztasun funtzionala duten gazteei zuzenduta egon diren ekintza espezifikokoak.

Azaroaren 20ko jardunaldi inklusiboa jai-amaiera bat izatea nahi genuen, pertsona guztientzat irekia, nahi zuenak hainbat jardueratan parte hartzeko aukera izan zezan. Lehenengo orduan, Gela

pedagogikoaren laguntzarekin, bizikleta ibilbide txiki bat egin zen herrian zehar.

Ekitaldian 30 partaide inguru elkartu ziren, umeak eta helduak, parte hartzeko eta gozatzeko gogoz. Jarduerak ordubate inguru iraun zuen, eta bertaratuek primeran pasatu ei zuten.

Goiz erdian jendea animatzen hasi zen; musikak erakarrita futbol kantxan prestatzen ari zena kuxkuxeatzera hurbildu ziren. Futbol zelaian gurgildun aulkietan egiteko zirkuituak prestatu zituzten eta helduak eta txikiak probatzera animatu ziren.

Ondoren, atletismo-jarduera egin zen, eta Beste Bira elkarteak parte hartu zuen bertan. Goizeko unerik esanguratsuenan izan zen, non Haszten, Beste Bira eta bertara hurbildutako neska-mutilak elkartu ziren. Jolasak eta barreak izan ziren nagusi.

Goiza amaitzeko, Haszten elkarteak, oroigarri gisa, plaka bat eman zion Josu Andoni Begoña Mankomunitateburuari, Txorierriko Mankomunitateak kirol egokitua eta inklusiboa bultzatzeko egiten duen lanagatik.

**#InfoTxorierri**

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak antolatzen dituen ekintzen inguruko informazioa jaso nahi duzu WhatsApp bidez?

**94 454 01 65**

Bidali ALTA hitza eta zabalkunde zerrandan sartuko zara







# “Txorierri 2021” proiektuak enplegua sustatuko du eskualdean

285.005 euroko aurrekontua duela, Enplegua Sustatzeko Txorierri 2021eko Proiektua gauzatu da. Proiektu horren helburua da kontratazioak sustatzea merkatu ez-arruntean, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegarritasuna handitzeko, haien kualifikazioa, gaitasun pertsonalak eta motibazioa indartuko dituen aldi baterako lan-esperientziaren bidez.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak proiektuaren % 63 finantzatu du (181.645 euro), eta gainerako % 37a (103.360 euro) proiektua osatzen duten zortzi erakundeek jarriko dute. Alde batetik, Txorierriko sei udalek (Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudio); eta bestetik, Egaz Txorierri Tokigarapenerako Agentziak eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak berak.

Guztira, Enplegu Planak 18 lanpostu berri sortuko ditu Txorierriko egoera ahulenean dauden pertsonen eta enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboen artean.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezartzen duenez, Txorierriko Enplegu Planean parte hartzen duten pertsonen langabezian egon behar dute, enplegu-eskatzaille gisa izena emanda, baita erakunde kontratatzaile bakoitzaren jardueraren eremuko udalerrian erroldatuta ere.

Era berean, kolektibo hauetakoren bakoitzak izan beharko dute: diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak edo onuradunak, iraupen luzeko langabeak, 35 urtetik beherakoak, 45 urtetik gorakoak edo gizarte-bazterketako arriskuan daudenak.

Kontratatutako pertsona guztien % 15ek, gutxienez, 55 urtetik gorakoak izan behar dute, eta gutxienez % 30ek diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrak edo onuradunak izan behar dute. Horrez gain, parte-hartzaileen % 40, gutxienez, emakumeak izango dira.

Enplegua sustatzeko “Txorierri 2021” proiektuan garatu beharreko jarduerak guztiak udal-erakunde bakoitzak antzemandako beharren arabera diseinatu daude, eta mota guztietako profilak jasotzen dituzte. Horrela, bai tituludunak

Txorierri Eskualdeko Enplegu Plana tresna bat da lurraldearen tokiko garapena gidatzeko, udal-erakundeek kontratazioak sustatuz, erabilera edo interes publikoko jarduerak egin ditzaten.



bai kualifikazio txikiagoko pertsonak gizarteratzea sustatzen da, eta udal-zerbitzuak indartzen dira, bai teknikoak eta administratiboak, bai birgaitzeko eta mantentzeko zerbitzuak.

Kontratazioak 2021eko abenduaren 31 baino lehen hasi beharko dira, eta 2022ko ekainaren 30a baino lehen amaitu. Eskaintzak Lanbideren bidez kudeatuko dira, eta, handik, hautagaitzak eskualdeko enplegua kudeatzen duen Egaz Txorierri erakundera bideratuko dira; erakunde hori arduratuko da ezarritako irizpideak

betetzen direla egiaztatzeaz. Kontuan hartu behar da 2019ko edo 2020ko edizioetako Enplegu Planen batean parte hartu duten pertsonen ezin izango dutela berriro parte hartu.

Proiektu hau asmo handiko plana da, gutxienez 3 hilabeteko lan-esperientzia eskaintzen du, % 50eko gutxienezko lanaldiarekin, eta lanpostu jakin batzuetan 9 hilabetera eta/edo lanaldi osora zabaltzen da. Pizgarri handia da lan-egoera ahulean dauden pertsonentzat, eta pizgarri izango da beren helburu profesionalak lortzeko.

t/a: Itxaso Marina Ondarrea

Lanaren helburua da heriotzari buruz beste begirada bat eskaintzea, eta, horretarako, bertan batu ditu hainbat ideia, pentsamendu eta jarduera. "Alde batetik jaso dut antzinako beste kultura batzuek heriotza nola ikusten duten eta bere inguruan zer-nolako errituak egiten dituzten. Indonesian, Tana Torajan, esaterako, gorpua zulo batean uzten dute eta denbora-tarte bat pasatzen denean handik ateratzen dute etxera eramateko. Bestalde, heriotzaren gaineko ideia ezberdinak ere ekarri ditut lanera, hala nola biozentrismoa, hau da, denak bizidunen inguruan funtzionatzen duela pentsatzea, eta transhumanismoa. Azken hori modan dago gaur egun eta bere oinarria da gizakiak teknologia berriekin guztiz bat egitea, batzuen ustez, hilezkortasuna ere lortu ahal izateko".

Larrabetzuarrak hiltzen laguntzeari buruzko hausnarketak ere bildu ditu lanean, eta heriotzaren aurrean pertsonak izan ohi dituzten faseak, adibidez, ukazioa, amorrua edo depresioa. Era berean, idazleek-eta heriotzaren inguruan sortutako lanei erreparatu die. "Esate baterako, emaztea hil zenean Xabier Letek idatzitako poemak, edo Isabel Allendek alaba zenari buruz idatzitako liburua". Miguel de Unamunori, sariketari izena ematen dionari, ere egin dio keinua. "Izan ere, nire ustea da Unamunok sei urte zituela, aitak bere buruaz beste egin zuela, eta, kasualitatez edo, Unamunoren semea hi-

## "Heriotza antibalioa da"

OSKAR GAZTELU | irakaslea eta dazlea

Bilboko Udalak Migel de Unamuno Saiakera Lehiaketa antolatu du 12. aldiz, eta hori Oskar Gaztelu Bilbao larrabetzuarrak irabazi du. Gazteluk *Heriotzari aurrez aurre begira* saiakera aurkeztu du, oraindik gure gizartean deserosoa den gaiari buruz hausnartzeko gonbitea egiten duena.

*"Gai partikularra da, bakoitzak bere sentimenduak dituelako, baina unibertsala ere bai"*

*"Saiakerak ikerketa zabaltzeko aukera ematen du, eta gai bat sakontzeko modua da"*

drozefaliaz hil zen sei urterekin". Hiru testigantza ere jaso ditu, hurbilekoak joaten direnean, nolako bizipenak eta faseak izaten ditugun azaltzeko.


Gazteluren hitzetan, gure gizartean guztiz estigmatizatuta dago heriotzari buruz hitz egitea. "Gauza negatibotzat jotzen da: jendeak zoriontsu bizi nahi du eta badirudi beste bati heriotzaz mintzatzeko bazatzaizkio eguna hondatuko diozula. Tabu horrek ekartzen du per-

tsionak tokirik ez izatea bere dolua adierazteko. Proposamen batzuk daude horri erantzuna emateko, esaterako, inguru seguruak sortzea, pertsonak zer gertatzen ari zaien kontatu ahal izateko. Azken batean, oso gai partikularra da, bakoitzak bere sentimenduak dituelako, baina, aldi berean, oso gai unibertsala ere bada, guztioi gertatzen zaigulako. Antzinako errituak baliagarriak ziren badesa emateko, eta nire proposamena



## Hurbiletik

Larrabetzu, 1964. Magisteritzan diplomaduna da, Euskal Filologiaren arloan, eta Ingeles Filologian lizentziaduna. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasle ibili da 29 urtean, eta gaur egun Leioako Helduen Hezkuntzako Ikastetxeko (HHI) ikasketak burua da. Interes handia du psikologia transpersonalean eta pertsonen portaeretan eta pentsatzeko moduan. Pertsonalitatearen eneagrama ikasi du eta formazioa programazio neurolinguistikoa, PNL, ere badu.



da, lehenengoak ez badira, erritu berriak sortzea, *death* kafeak kasu. Jendea horietara joaten da heriotzari buruz hitz egitera”.

Heriotzari lekua emateko proposamen egiten du, hortaz. “Izan ere, askotan hiltzorian dagoenari ez zaio esaten joango dela, nahiz eta berak badakien. Familiak ez du hura sufritzea nahi, baina hiltzorian dagoenak ere ez ditu senideak sufritzea nahi, eta ez dago komunikaziorako au-

kerarik. Gainera, oso garrantzitsua da doluaren prozesua ondo egitea, hura amaitzen ez bada, norberaren osasunerako kaltegarriak diren ondorioak gelditzen dira eta”.

### Hausnartzeko ariketa

Heriotza urrun izan nahi dugu eta, Gazteluk adierazi duenez, tanatorioak ere urrun ipintzen dira. “Heriotza antibalioa da. Gure balioak dira kontsumoa, ekoiz-

pena eta munduan norbait izatea; heriotza horien guztien kontrakoa da”. Gaiak, halere, aspaldian ematen dio ardura, “adinagatik izango da, inguruko gertaerengatik... eta lagunak ere ba-  
doazelako”.

*Heriotzari aurrez aurre begira* saiakera hiru urteko lanaren emaitza da eta ikasteko eta hausnartzeko ariketa ere izan da egilearentzat. Gazteluk idatzitako bigarren saiakera da, aurretik *Nire bizitza ni barik* lana idatzita baitu. Azken lan horri esker Becerro de Bengoa XXXI. Saiakera Saria irabazi zuen 2019. urtean. “Saiakerak ikerketa zabaltzeko aukera ematen du, eta idazten ibili naizen bitartean ikasi ere egin dut. Gai bat sakontzeko modua da, eta hasieran espero ez zenituen tokietara ailegatzeko era. Nolanahi ere, aspaldian dut poesian ere interesa, uste dudalako leku batzuetara arin heltzeko bidea dela”. Lehenengo saiakeran norberaren burua ezagutzea izan zuen hizpide, eta haren eskutik heldu da bigarrenean. “Mundu osoa heriotzaren inguruan mugitzen da, erlijio handiak, filosofoak... Beti dago gure pentsamenduan”.

Arabako Foru Aldundiak ematen du Becerro de Bengoa saria eta lan irabazleak ere ematen ditu argitara; Unamuno saria, Erein argitaletxeak plazaratzen du. Lehen saiakera argitaratuta dago jadanik, eta bigarrena laster izango da kalean. “Ilusioa da jendeak irakurtzea”. Bi saiakera, bi sari; hurrengo lana buruan du eta, aurreratu digunez, hura xamanen munduari buruzkoa izango da.



**Aingeruek badakite  
hegan egiten,  
euren burua  
arinkeriaz  
hartzen dutelako.**

-Chesterton-

  
**SULT DELUX**  
ARRETSEK ARSADEN HARTZEN DUTEN LIBURUA  
sultdelux.com



# "Lehengai onik gabe ez dago sukaldaritza onik"

IÑAKI BOLUMBURU | sukaldaria

Iñaki Bolumburu Derioko baserri batean jaio zen 1992an. Familian sukaldari profesionalik egon ez arren, etxean ikasi zuen lehengaien garrantzia eta etxeko andreak irakatsi zizkioten etxeko sukaldaritzaren lehenengo zertzeladak. Oinarri teknikoak Artxandako eskolan ikasi zituen eta handik aurrera, gogor egin du lan hainbat jatetxetan eta hainbat herrialdetan, ogibidea benetan barneratzeko. Egunen batean bere jatetxea sortzea gustatuko litzaioke, eta agian, Txorierrin jarriko du.

t: Gaizka Eguzkitza

## **Nondik datorkizu sukaldatzeko grina?**

Ez dakit, familiako lehenengo sukaldaria naiz. Txikitatik beti egon naiz produkturik onenez inguratuta, etxean denetarik genuelako: ortua, fruta arbolak, animaliak, perretxikoak... Eta etxeko andreak –amama, ama, izekoa– oso sukaldari trebeak izan dira, baita kontserbagileak ere. Gainera, 5-6 urte nituela, ortuko kalabazinak arrautzatzatzen nituen Naiara lehengusinarekin batera (kar, kar).

## **Non ikasi duzu?**

Batetik, amarengandik ikasi dut eta bestetik, Argiñanoren telebista saioetatik, amak beti ikusten zituelako (kar, kar). Gaztetan, Artxandako sukaldaritza eskolan ikasi nituen oinarriak, baina jatetxe askotan gogor lan eginez ikasi dut lanbidea.

## **Hainbat jatetxetan egon zara lanean, ezta?**

Bai, eskola amaitu nuenean, jatetxe tradizional askotan ibili nintzen zenbait herritan: Derion, Sondikan, Bakion, Plentzian... Haiei esker, sukaldaritzaren oinarriak finkatu ahal izan nituen. Geroago, goi-mailako jatetxeetan ibilia naiz, horietako batzuk munduko onenak: Errioxako Venta Moncalvillo (horrek Michelin izar bat du); Donostiako Bodegon Alejandro; Gipuzkoako Mugaritz (Michelin izar bi); Holandako Pure C (Michelin izar bi); Danimarkako Noma (Michelin hiru izar) eta Bilboko Guggenheim Museoa da goen Nerua (Michelin izar bat).

*"Sukaldaritza batez ere amarengandik ikasi dut; baita Argiñanoren saioetatik ere, beti ikusten genituelako"*

*"Ikastegietan oinarriak ikasten dituzu eta hori garrantzitsua da, baina lana benetako bizitza da"*

*"Sukaldaria izatea pasionala da, bizimodua, eta horrela ez bada, hobe zenuke ogibidez aldatzea"*

## **Azurmendin, Larrabetzun, ere ibilia zara, ezta?**

Bai (kar, kar). Mugaritzen nengoela, oporretan, aste bi eman nituen Azurmendin. Geroago, lana eskaini zidaten bertan, baina uko egin nion kanpora joan nahi nuelako: ingelesa ikasi, hobeto prestatu... "Ingelesa oso inportantea da, Iñaki" esan

zidan irribarretsu Eneko Atxak. Eskua eman zidan eta zorte ona opa zidan.

## **Zergatik erabaki zenuen kanpora joatea?**

Beste kultura, estilo, jatetxe eta janari mota batzuk ezagutzeagatik eta ikasteagatik. Hori Euskal Herrian gertatu zen duela 45 urte: gure sukaldaririk onenetakoak –Arzak, Subijana, Argiñano, Roteta, Irizar...– Frantziara joan ziren *Nouvelle cuisine* ikastera eta hori aintzat hartuta, iraultza gastronomikoa egin zuten hemen.

## **Non ikasten da gehien: ikastegietan ala lantokietan?**

Lantokietan, % 200ean. Ikastegietan oinarriak ikasten dituzu eta hori garrantzitsua da jatetxeetan azkarrago, errazago eta hobeto ikasteko, baina lana benetako bizitza da.

## **Eta euskal sukaldaritza? Munduko onenarikoa da?**

Bai. Euskal Herria berezia eta miresgarria da: munduko jatetxe onenarikoa ditugu; lau urtarotetan banatuta eta bereizten diren produktu ikaragarriak; kultura oparoa, harrotasuna, leku zoragarria... Askotan ez dakigu zer daukagun geure inguruan.

## **Etengabeko heziketa da sukaldaritza?**

Sukaldaritza zelan sentitzen dudan kontuan hartuta, baietz esango nuke zalantza barik. Nire ustez, sukaldaria izatea pasionala da eta horrela ez bada, hobe zenuke ogibidez aldatzea eta benetan gustatzen zaizuna egitea. Sukaldaria izatea bizimodua da.



Ikasketak bukatu bezain pronto, Iñaki Bolumburu hasi zen jatetxe batetik bestera. Gaur egun Parisen dabil "pop-up/residency" delakoa egiten. Hara heldu da hainbat leku ezagutu eta gero. Sukaldari ibiltaria da, nomada. "Nerua jatetxean nengoela, Josean Alijak berarekin kanpora joateko aukera eman zidan, beste jatetxe handiekin harremanetan egotera. Han bukatu nuenean, duela hiru urte, Nomada proiektua jarri nuen martxan eta horri esker hainbat lekutatik bidaiatu naiz: Estonia, Portugal, Errusia, Kroazia, Frantzia, Thailandia, Ukraina, Holanda, Italian... Leku guztietan bizi, egosi eta ikasi dut (kar, kar). Guztira, 28 herrialdetan egon naiz: 20tan sukaldatzen; eta gainerako zortzietan, oporretan. Baina berdin dio zertara joan naizen herri batera: beti nago gastronomiari adi; sormena eta inspirazioa nonahi daude", kontatu digu.

Bolumburuk izugarri ikasten du atzerrian. "Toki guztietan daude gauza onak eta txarrak. Dena dela, pertsona baikorra naiz: gustatzen ez zaidana ezabatu egiten dut eta gustatzen zaidanari eutsi. Jarrera horrek pertsona eta sukaldari hobea egiten nau". Bere esanetan, "zaporeak koloreak bezalakoak dira, batzuk beste batzuk baino gehiago gustatzen zaizkizu. Eta

## Sukaldari nomada



margolaria zarenean, guztiak erabiltzen dituzu, ezta? Hori gertatzen zaigu sukaldarioi".

Bidaietan gauza arraroak dastatu ditu, esate baterako Filipinasen baluta jateko aukera izan zuen. "Funtsean, enbrioia

duen ahate-arrautza egosia da. Ez da egokia guztiontzat (kar, kar)". Etxeko sukaldaritzan ere gogan du, baita senideak eta hemengo lagunak ere. "Beti etxearen mira dut. Ez zara inoiz etxean baino hobeto inon egongo", dio derioztarrak.

*"Ez pentsa sukaldariok egunero Michelin jatetxeetan jaten dugunik (kar, kar)"*

**Askotan gutxiesten da goi-mailako sukaldaritzari. Zer esango zenieke kritikatzeko diotenei?**

Normalean, kritikak egiten dituztenek probatu ere egin ez dutenak izaten dira. Nik probatzeko esango nieke. Eta gustatzen ez bazaie, ez da ezer gertatzen! Zenbat buru, hainbat aburu. Horixe da gastronomiaren edertasuna. Niri ere babarrunak, patata tortilla eta arrautza frijituak gustatzen zaizkit, ez pentsa sukaldariok egunero "Michelin" jatetxeetan jaten dugunik (kar, kar).

**Nolako garrantzia dauka lehen-gaiak? Eta sukaldariak?**

Lehengai onik gabe ez dago sukaldaritzari onik. Sukaldaria bakarrik kezkatu behar da lehen-gaia ez ondatzeaz, eta



horretarako, noski, ikasi egin behar du eta "ukitua" izan behar du.

**Nolako sukaldaria zara?**

Produktuen eta ekoizleen defendatzailea, naturarekin maitemindua eta oso kuriozkoa.

**Zure jatetxe propioa izatea gustatuko litzaizuke? Nolako izango litzateke?**

Bai, horixe, baina auskalo zer gertatuko den. Agian, Txorierrin jarriko nuke. Ez dakit.

Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIN KO UDAL  
EVSKALTEGIA



**"Ez ditzala haizeak euskal hitzak eroan,  
erabil ditzagun erakusteko haien xarma"**



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38




euskaltegia@txorierrin.eus

# Euskaraz blai

a: Euskaltzaleen Topagunea

Euria barra-barra ari zuela ospatu dugu Euskararen Eguna aurten. Egoerak asko lagundu ez duen arren, Txorierriko Mankomunitateak oso balorazio positiboa egin du aurtengo ekintzen inguruan. "Behintzat ekintzak aurrera atera direla aipatu beharra dago, eta hori ez da gutxi. Asteburuan, ez zen jende gehiegi gerturatu Zamudiora, eguraldia oso-oso kaskarra izan baitzen, baina aste barruko ekintzak oso ondo atera zirela ondorioztatu dezakegu. Segurtasun-neurri guztiak ederto bete ziren eta ikastetxeek orokorrean, eta aurten bereziki Zamudioko ikasleek, itzelezko lana egin zuten aurkezpenak, bertsoak... prestatzen. Zorionak eman behar zaizkie benetan, bai irakasle eta bai ikasleei egin duten ahaleginarengatik eta jarritako interesarengatik". 2022ko prestaketei ilusioz eta gogoz beteta ekingo dietela esan dute.







Larrabetzun, eskolako umeek egindako marrazkiek osatutako bideo-mappinga egin zen. a: Idoia Andres



**Zentzuz erosi.**  
Ondo informatu zaitez. Ezagutu zure eskubideak.  
**Baztertu estereotipoak.**

**Zeu zara zure  
influencer onena.**  
#KontsumitzenJakin

**kontsumoBIDE**  
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
EUSKAL LEGI-ERAKUNDA GOBIERNO VASCO DE EUSKADI  
JUSTITIA, ENERGIAREN, LURAREN, OZEAREN, HERRIEN, KULTURAREN, TURISMOAREN, ENBIZIAREN, ENBIZIAREN, ENBIZIAREN, ENBIZIAREN



Oharra: Abenduko alea ixtean jaso ditugu hurrengo orrialdeetako Gabonetako egitarauak. Hala ere, osasun-egoeraren bilakaerak baldintzatzen ditu ekitaldiak eta baliteke bertan behera utzi behar izatea. Horregatik komenigarria da udal-webguneetara eta sare sozialetara jotzea, ekintzetara joan baino lehen.

## Sondika

### Abenduak 24, barikua

- 11:00 Gabonetako kanapeak, Ludoteka txikian.
- 11:00 Slime, Ludoteka gaztean.
- 17:00 Olentzero eta Mari Domingi. Jaiotza biziduna. Irteera, udaletxetik.
- 17:00 Musika-festa txikia, Gaztetxean.

### Abenduak 26, domeka

- 17:00 Zinea, Gaztetxean.

### Abenduak 27, astelehena

- 11:00 Purpurinarekin apaintzen, Ludoteka txikian.
- 11:00 Hiru marran joko erraldoia, Ludoteka gaztean.
- 17:00 Gabonetako postalak eta lettering-a, Gaztetxean.

### Abenduak 28, martitzena

- 10:00 El Pobal burdinolara irteera (2016-2018 urteetan jaiotakoentzat), Ludoteka txikiak antolatua.
- 10:30 KNS Abentura Parkera irteera (2009-2010 urteetan jaiotakoentzat), Ludoteka gazteak antolatua.
- 11:00 Gabonetako bola, Ludoteka txikian.
- 11:00 Hiru marran joko erraldoia, Ludoteka gaztean.
- 17:00 Joko librea, Gaztetxean.
- 17:00 Bizkaia Parkera irteera, Gaztetxeak antolatua.

### Abenduak 29, eguaztena

- 12:00-14:00 Txiki-gunea, Goronda Beko kiroldegian.
- 17:00 Light Painting-a, Gaztetxean.
- 17:00-20:30 Txiki-gunea, Goronda Beko kiroldegian.

### Abenduak 30, eguena

- 12:00-14:00 Txiki-gunea, Goronda Beko kiroldegian.
- 17:00 Fantasiazko makillaje-tailerra, Gaztetxean.
- 17:00-20:30 Txiki-gunea, Goronda Beko kiroldegian.

### Abenduak 31, barikua

- 09:30 Arkeologia museora irteera (2014-2015 urteetan jaiotakoentzat), Ludoteka txikiak antolatua.
- 11:00 "Agur 2021" ekitaldia, Ludoteka txikian eta gaztean.
- 17:00 2021. urteari agur esateko festa txikia, Gaztetxean.



### Urtarrilak 2, domeka

- 17:00 Zinea, Gaztetxean.

### Urtarrilak 3, astelehena

- 10:30 Athleticceko museora irteera (2011-2013 urteetan jaiotakoentzat), Ludoteka gazteak antolatua.
- 17:00 Zenbaki-jokoak, Gaztetxean.

### Urtarrilak 4, martitzena

- 10:00 Territorio Dakotara irteera (2016-2018 urteetan jaiotakoentzat), Ludoteka txikiak antolatua.

- 10:30 Gasteizko Izotz Jauregira irteera (2009-2010 urteetan jaiotakoentzat), Ludoteka gazteak antolatua.

- 17:00 Joko librea, Gaztetxean.

- 17:15 Zero Latency Bilbao aretora irteera, Gaztetxeak antolatua.

### Urtarrilak 5, eguaztena

- 10:00 Bizkaia Parkera irteera (2014-2015 urteetan jaiotakoentzat), Ludoteka txikiak antolatua.

- 17:00 Bakarrizketa, Gaztetxean.



## Loiu



### Abenduak 24, barikua

-12:00 Olentzero eta Mari Domingi, Larrondon. Ibilbidea: Bolinaga kaletik Larrondoko plazara.

-16:30 Olentzero eta Mari Domingi, Larrondoko San Migel ermitan.

-18:00 Olentzero eta Mari Domingi, Zabaloetxen. Klaratarretatik udaletxera.

### Abenduak 27, astelehena

-18:00 *Meri, Mari eta Lari*, Larrondoko frontoian.

### Abenduak 29, asteazkena

-18:00 Kontu-kontalaria: *Din dan don bator 2022!* Liburutegian.

### Abenduak 30, eguena

-18:00 Oliver Magoa eta Liuba Erdi Aroko ipuin magikoa, Larrondoko frontoian.

-18:30 (Zabaloetxe) eta 18:40 (Larrondo) *Bataklan Kabaret*, Campos Eliseos antzokian. Izena ematea: abenduaren 28ra arte, udaletxean.

### Abenduak 31, barikua

-10:00 Karabizura igoera, Herriko Plazan. Izena ematea: abenduaren 28ra arte, udaletxean.

### Urtarrilak 2, domeka

-11:00-13:00 eta 17:00-20:00 Haur-parkea, Larrondon.

### Urtarrilak 4, martitzena

-18:00 *Snowy* kontu-kontalaria, liburutegian.

### Urtarrilak 7, barikua

18:00 *El rey león* musikala, Zabaloetxeko frontoian. Izena ematea: abenduaren 30era arte, udaletxean.

**TALDEA**  **GURENA**  
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

**ZURE NEURRIRA**



**BABESPEKO  
APARTAMENTUAK**  
600 euro  
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIK  
EGOITZEAN**  
egunean  
gauean  
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9  
LOIU 48180  
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

**944 530 049**  
**www.gurena.com**

## Larrabetzu (Hori Baik antolatua)

### Abenduak 23, eguena

-15:30 Olentzeroren bila, plazan.

### Abenduak 24, barikua

-18:00 Olentzero, zerran.

### Abenduak 25, zapatua

-19:00 Bertso-saioa: Julio Soto, Jone Uria, Maialen Lujanbio eta Igor Elortza.

Dj Bull.

### Abenduak 28, martitzena

-18:30 *Biba Voi!* antzezlana, Tartean Teatrotoren eskutik.

### Abenduak 31, barikua

-Kotilioia. Gaia: etorkizuna.

### Urtarrilak 3, astelehena

-17:00 "Paramilización y brigadistas en Chiapas" hitzaldia.

### Urtarrilak 6, eguena

-17:30 Umeentzako pelikula eta txokolatada.

### Urtarrilak 7, barikua

-22:00 Gazte-afari musikatua.

### Urtarrilak 8, zapatua

-09:30 Auzoz auzo, plazan.

-Bilboko manifestaziora joatea.



## Lezama

### Abenduak 24, barikua

-Arratsaldean: Olentzero eta Mari Domingi, plazan (eguraldi txarra badago, frontoian).

### Abenduak 27, astelehena

-18:00 Monda Lironda pailazoak, Kultura Aretoan.

### Abenduak 29, eguaztena

-Goizean: Tximiparkera irteera (4-8 urtekoentzat).

### Abenduak 30, eguena

-Arratsaldean: Bilboko izotz-pistara irteera (9-13 urtekoentzat).

**Iz**  
Txantxangorri, 2  
ZAMUDIO  
946 036 943  
ile-apaindegia  
estetika

**GALAISIA**  
Etengabeko  
ordutegia  
Estetika eta ile-apaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51  
Sabino Arana 1-3. SONDIKA

**Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala  
Txorierrri et., 46  
48150 Sondika  
Bizkaia  
94 453 25 15  
94 453 39 31



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3, 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34



**Ursula\_psicóloga**  
Psikologia & Neuropsikologia

Autismoa  
Hiperaktibitatea  
Dislexia  
Arreta arazoak  
Memoria  
Hezkuntza zailtasunak

644 649 752

ursula@cop.es

Las Mercedes 31, 4., 3. bul. (Abra 3 erakina)  
48930 Areeta (Getxo)

**HARRI-BILBO**

HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK  
ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRIOIA, DURANGO  
E-mail: recupresaharribilbo@euskalnet.net

LANTZERIA:  
Kurtzea Industrialdea, z/g + 48196 LEZAMA  
94 452 10 71

ERAMISTOKIA:  
Itzaropena, 2 + 48100 MUNGIA  
94 674 33 40

**ZORRIZKETAN**

LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

**Gabon zoriontsuak  
lezamar eta  
txorierritar guztioi**



BATAK BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ  
Tel.: 94 455 60 76

Gorbeia, 7 Behea  
48170 ZAMUDIO (Bizkala)  
Tel.: 94 452 21 41  
Faxa: 94 452 21 42  
www.gestionzamudio.com  
gestionzamudio@gestionzamudio.com

**Gestión Zamudio**

Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García  
AKTUARIO-EKONOMILARIA



**LABURBETZU  
BIZIBIL**

**ETXEN  
GURE DOGUZ  
GIBONETAN**

ANDRA MARI KALEA  
TEL.: 94 455 84 64



ospatu gurekin!  
**GABON GAUA  
GABON ZAHARRA**

Errementeri, 8  
48150 SONDIKA  
944 532 592  
652 732 584

**Pikoteo Taberna**

KAXOLAK - OLAGARROA  
TXIPIROIAK

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6  
48170 ZAMUDIO

689 213 782

# PAI Bitartean programa: urtebete Derion

t: Joanes Camara, gizarteratze-teknikaria

Gizartetik kanpo dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen laguntzen dieten zentroak behar-beharrezkoak dira. Urte-amaiera hurbil zegoela, eta Emaus Gizarte Fundazioak Derion duen PAI Bitartean zerbitzuko eguneko zentroak urtebete egin duela kontuan hartuta, erabaki genuen derioztarrei zein inguruko herrietako biztanleei azaltzea esandako zentroak zein garrantzitsuak diren. Horretarako, Derioko Udalarekin elkarlanean, zenbait jarduera antolatu ditugu Emaus Gizarte Fundazioan, eta zehatz-mehatz PAI Bitartean zerbitzuan, egiten dugun lana herritarrei ezagutzera emateko.

Konkretuki, hiru ekintza egin dira: atea irekitzeko eguna, hitzaldi bat eta Kultur Birikan 20 egunean egon den erakusketa. Lehenengo biak egun berean izan ziren, azaroaren 15ean. Ateak irekitzeko egunean, pozik hartu genituen gure instalazioak eta lana ezagutzera hurbildu ziren herritarrek eta Mungiako OLHko ikasleek egindako kopaua eskaini genien. Herritarrek, zerbitzuko erabiltzaileek eta Emauseko langileok tarte

## Komunitatearen parte aktiboa izaten jarraitzeko gogotsu gabiltza

atsegina pasatu genuen elkarrekin. Lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkiegu ekintzan parte hartu zuten guztiei eta Mungiako ikasleei, kopau bikaina prestatu zuten eta.

Ondoren, Kultur Birikara joan ginen PAI Bitartean zerbitzuari buruzko hitzaldia egitera. Bertan bildu zirenak etxerik gabeko pertsonetikiko sentikor bihurtzen ahalegindu ginen, gure ekimenen eta ekintzen berri eman genuen eta parte-hartzaileen galderei erantzun genien. Azpimarratu genuenez, ez dago arrazoi zehatzik, pertsonak etxerik gabeko egoeran egoteko; hala ere, horretara bideratu gaitzaketen egoera estresagarriak badaude: maite dugunaren heriotza, bikotekidearengandik banatzea, lana galtzea, baliabide ekonomikorik eta emozionalik ez izatea (lagunak eta se-

nideak galtzea) eta etxebizitza galtzea. Kalkuluen arabera, pertsona batek lauzpabost egoera estresagarri pairatu ditzake bizitzan; nolahi ere, pertsona batzuek zazpi edo zortzi gertaera traumatiko jasan ditzakete denbora-tarte laburragoan eta zauri horiek bizi-haustura ekartzen dute.

### Hurbilago

Lehen aipatu dugun moduan, ekintza horietaz gainera, erakusketa egin genuen Kultur Birikan. Hango erakusketa-aretoan ikusgai ipini genituen proiektuaren gaineko informazio-panelak, gure zentroetan egunero egiten diren ekintzen argazkiak, komunikabideek guri buruz idatzitako artikulua eta programaren tailerretan egindako lanak. Helburua izan zen Emaus Gizarte Fundazioan gizarterik kanpo dauden edo egon daitezkeen pertsonekin egiten dugun lana plazaratzea.

Emaizta ikusita, PAI Bitarteaneko langileok eskerrak eman nahi dizkiegu ekintzetara hurbildu diren pertsonen, eta espero dugu hurrengo ekintzetan jende gehiago batzea. Era berean, garrantzitsutzat jotzen ditugu Derioko Udalak emandako erraztasunak, hala nola erakusketarako materialak sortzeko emandako laguntza eta Kultur Birikan hitzaldia egiteko aretoa uztea. Horrek guztiak inguruko herritarrengandik hurbilago egoteko aukera ekarri digu, eta, hortaz, komunitatearen parte aktiboa izaten jarraitzeko gogotsu gabiltza.





t: Txiribita / a: www.floristerianerine.com

Zurtoin berdea eta oso adarkatua du, hosto kontrajarriak eta berde horixkak. Landareak forma biribila du. Ezin da lurrean hazi, sustrairik ez duelako; beraz, mihura ia parasitua izango balitz moduan hazten da zuhaitz eta zuhaixka batzuetan, hala nola sagarrondoetan, mardariondoetan, zumeetan eta haritzetan. Apirilean eta maiatzean loratzen da eta baiak udazkenean heltzen dira. Udan eta udazkenean batu behar dira, solstizioak hurbil daudenean.

Landare diuretikoak da, oso ona bihotzerako eta odol-zirkulaziorako. Tentsioa erregulatzen du: tentsioa altu badugu, lagungarria da hark behera egiteko, eta baxu badugu, gora egiteko. Ez ditugu bere baiak hartu behar, toxikoak dira eta; hortaz, adarrak eta hostoak erabiliko ditugu. Horretarako, infusio hotza egingo dugu (ez da landarea egosi behar). Baiak kendu, eta hostoak eta zurtoinak urez betetako edalontzi batean jalkiko ditugu gau osoan. Goizean edalontzi bat infusio hartuko dugu, eta gauean beste bat.

Mihuraren fruituak egoki-egokiak dira mendian edo egun hotzetan izan ohi

diren gorputz-atalen izozketei aurre egiteko. Beraz, konponbide ezin hobea da alpinistentzat, eskiatzaileentzat eta hotza dagoenean mendian dabilen edonorentzat. Izozten ari den gorputzeko edozein ataletan erabil daiteke: sudurrean, eskuetan, hanketan...

#### Errezetak

Pomada egiteko: baiak xehatuko ditugu, eta olioarekin nahasi. Maria bainutan berotuko dugu tarte luze batean eta su eztian; 30-40 minutu inguru. Sutatik kendu, eta iragazki bat erabilita iragaziko dugu mihuraren abarrak kentzeko. Olio onzi garbi batean ipiniko dugu. Bestalde, mihura-ardoa egin daiteke. Prozesua hau da: ardo zuri litro batean 40 g hosto ipini behar dira, eta zortzi egunean beratu. Azkenik, ardoa iragazi behar da.

#### Kontraindikazioak

Baia zuriak toxikoak dira ugaztunentzat, baina ez herbiboroentzat. Landare hau arriskutsua izan daiteke, kantitate handia hartzen bada. Era berean, ez da irentsi behar, ondo ezagutzen ez bada, eta

## Landareak batzeko aholkuak

**Orokorrean:** hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezten; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak bada; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

**Non:** larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

**Noiz:** goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

**Materialak:** eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

gomendagarria da medikuari jakinaraztea hartzen gabiltzala.

#### Bitxikeriak

Landara ikertzen dabilta, minbiziaren aurkako propietate handiak baitu. Modu korapilatsuan eta bitxian ugaltzen da. Izan ere, mihura ez da berez hazten eta, era berean, guk landatzen badugu, ez da ateratzen. Txoriak dira mihura ugaltu dezaketen bakarrak: fruituak jaten dituzte eta haziak zuhaitz batetik bestera eramaten dituzte. Mihura nahi baduzu, zaindu txoriak!



**HARATEGIA**  
**ALBERTO**

Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO



**ALZORA**

Sondikako euskara elkarte



**ORIONAK**  
RTE BERRI ON!

# James Webb teleskopioa, galaxietara begira

t: *Xabier Diaz*

Hitz hauek idazten hasi nintzela, “15 days 18 hrs 44 mins 51 secs” zekarren James Webb espazioko teleskopio<sup>(1)</sup> berrriaren NASAREN gunean<sup>(2)</sup>, hori baitzen abenduaren 22an izango den bere jaurtiketarako momentu hartan falta zen denbora. Bueno, ustez... Izan ere, hasierako agendan Lurra 2007an uztekoa

zen, eta harrezkero hitzordua 15 aldiz atzeratu da.

1990. urtean orbitara bidalitako Hubble teleskopioa<sup>(3)</sup> itzelezko aurrerapausoa izan zen astronomiarako. Ingurutzan gaituen atmosferak islatu eta aldatu egiten du gurera datorren argia, eta hartatik kanpo egoteak informazio gehiago eta garbiagoa eskura edukitzea ahalbidetzen du. Lanean hasi zenetik, Lu-


rretik 600 km-ra biraka dabilen satellite horrek 1,5 millioi behaketa egin ditu eta astronomoek 18.000 txosten<sup>(4)</sup> baino gehiago argitaratu dituzte. Aspaldian amortizatuta egon arren, emaitza onak ematen jarraitu duenez, bere bizitza luzatuz eta luzatuz joan dira, baina dagoeneko erretiroa hartzeko garaia iritsi zaio eta James Webb izango du ordezko.

Arazo eta zailtasun askori aurre egin eta gero, badirudi oraingoan bere bidaia bai hasiko dela. Esan bezala, Hubble Lurretik “gertu” dago, 600 km-ra, eta horrek balio izan du astronautak hara joateko eta konponketak, mantentze-lanak eta berrikuntzak egiteko (gogoratzen al duzue bere ispilu nagusiaren akatsaren<sup>(5)</sup> kontua?); horra hor bere arrakastaren eta bizitza-luzapenaren arrazoietakoa bat. Kasu honetan, berriz, askoz gehiago urrunduko da, 1.500.000 km-ra hain zuzen ere, Lurra-Eguzki sistemaren L<sub>2</sub> Lagrange puntutik<sup>(6)</sup> urrunago gauza bera egiteko.

Zergatik? Lagrange puntuak puntu egonkorak dira. Puntu horietan kokatzen denean, teleskopioa Lurraren abiadura berean mugituko da, “kanpora” begira, eta horrela Eguzkiaren zein Ilargiaren eta Lurraren argiek ez dute itsutuko.

James Webb teleskopioak infragorria –argi ikuskorra baino aproposagoa– aztertuko du, oso distantzia handietara dauden gorputzak ikusteko. Bere ispilu nagusia 6,5 m-koa da, Hubbleena baino 6,25 aldiz handiagoa. Hortaz, besteak beste, lehenengo galaxiak ikusteko gai izango da.

Edertasunaz, ezagutzaz, naturaz eta jakinminaz gozatzeko, laster zabalik izango dugun beste begi bat.



(1) Wikipedia, James Webb Teleskopioa <https://labur.eus/aikorJW1>

(2) NASA James Webb Space Telescope <https://labur.eus/aikorJW2>

(3) Wikipedia, Hubble Teleskopioa <https://labur.eus/aikorJW3>

(4) NASA, Hubble Telescope facts <https://labur.eus/aikorJW4>

(5) Elhuyar Aldizkaria, Arregi Bengoa, Jesus Iturria, 1994/01/01: Hubble Konpontzera <https://labur.eus/aikorJW5>

(6) Wikipedia, Langrange puntuak <https://labur.eus/aikorJW6>

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

**BIDE-GORRI**

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WIFI gunea

Txorierrri Et., 30  
48150 SONDIKA

94 453 35 05  
667 78 63 31

**PEÑA ATHLETIC  
BETI HARROBIA**





# Gabon, Gabonetan!

## Zergatik ez duzu idazten zeure biografia, egunkaria?

t: Juan Luis Goikoetxea

Atzo "gabon" esanez bidali genuen lotara 2021. urtea; gaur, "egun on" diogu 2022ko agurrean. Halakoa da denbora, inoiz gelditzen ez dena.

Lotara joan den 2021eko urte hori zelakoa izan da zuretzat, zuentzat? Zeuk kontatzen ez baduzu, zure ondorengoek edo ingurukoek ez dute ezer jakingo; hemendik 30 urtera, ahaztu egin dira orduko xehetasun asko. Jo dezagun COVID-19ak larri, arnasestuka, etzan zaituela ospitalean; irudika dezagun basoan galdurik egon zarela helikopteroz topatu zaituzten arte, edo bat-batean maitemindu zarela Eguberrietan. Ez du merezi une horietako gertaerak, sentimenduak idaztea?

Behar bada, telebistaren aurrean jarri, edo Instagrameko albisteetara makurturik, jende ospetsuaren -edo koi-petsuaren- bizitzak ikustea gustatzen zaizu. Eta zeure biografia? Ez ote da interresgarriagoa zuk bizi duzuna? Ala zeureak bost axola dizu?

Zergatik bihurtu merkatuko nagusien, ugazaben, txotxongilo? Geure bizitzaren jabe beharko genuke izan. Horretarako, isiltasun apur bat lortzea komeni zaigu, geure burua entzuteko; subjektuak garelako erakusteko, geure-geureak diren ideiak, asmoak, marrazkiak, oroitzenak, esaldi politak, sekretuak egunkari ezkutuan gordetzeko.

Nik lehenengo egunkaria idatzi nuen, pezetaz ordaintzen genuen kafea; gure gurasoek "mila erreal" nahiz "erreal bi" ordaintzen zuten dendan. Gaurko 10 euroren balioa 261,43 € zen 1966an, hots, 43.000 pezeta. Diru horrekin 1966an bigarren eskuko Seat 600a erosten zenuen.

Dena den, diruaren gaineko estatistikak-eta artxibatuta aurkituko dituzu, baina irakasleak zaplada emanik lurrera bota zintuela zortzi urterekin, ez da inon azalduko zeuk idazten ez baduzu.

Gaur egun, postmodernitate aroan, selfiak egiten ditugu, autofotoak, baina geure barrua ez dugu selfiatzen, azala, kanpoko itxura baino ez dugu salbatzen.

**IBARRONDO**

FISIOTERAPIA  
JARRERA-BERREZIKETA  
ESKU-TERAPIA  
NMP EKOGIDATUA  
(FISIOTERAPIA AURRERATUA)

MITXINE, 3  
48150 SONDIKA  
Tel. 94 453 92 00  
Mugikorra 617 674 202  
Mugikorra 688 601 871  
fisiobarrondo@gmail.com

**AMA**  
taberna 3

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)  
94 655 93 69

**ERREKA ONDO ETXEA**

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa.: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29

**LIBRERIA SONDIKA LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

Fotokopiak, koademaketa, plastifikatuak, prentsa, aldizkariak, liburuak, papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**GAMINIZ**  
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio · Bizkaia  
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

[www.gaminiz.com](http://www.gaminiz.com)

**JB** Construcciones-Reformas  
**IÑIGO BARCENA**  
Igeltserotza orokorra

Especializatea:  
Xafra-lanak  
Zoruak

944522910 - 665703312 - 652772016



LIBURUDENDA PAPERDENDA  
**ZAMUDIO**

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5 Tif. / Faxa:  
48170 ZAMUDIO 94 452 29 10

**GORBEIA MERTZERIA**



Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 08

**Hortz-klinika**  
**IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hortz-estetika  
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Arellaza doktorea, 11. - 1. esk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370

## Etxeko sukaldaritza

### Otarrainxka-entsalada epela

a: [www.foodiecrush.com](http://www.foodiecrush.com)

#### Osagaiak:

- 2 tomate
- 2 patata egosi
- Ahuakate bat
- 16 otarrainxka (burua eta azala kenduak)

#### Ozpin-olioa egiteko:

- 9 koilarakada oliba-olio
- 3 koilarakada Modenako ozpina
- Gatza



#### Prestatzeko era:

Patatak, tomateak eta ahuakatea gure gustura zatitu, eta zatiak lau plateretan banatuko ditugu. Ota-

rainxkak arin erregosiko ditugu zartagin batean eta entsalada bakoitzari lau gehituko dizkiogu. Azkenik, ozpin-olioa botako dugu.

### Gaztaina egosien budina

a: [www.headtopics.com](http://www.headtopics.com)

#### Osagaiak (lau laguentzat):

- 4 arrautza
- 200 ml esne
- 350 g esne kondentsatu
- 225 g gaztaina egosi (ondo txikituak)
- Karamelu likidoa

#### Prestetako errea:

Moldea karameluz igurtziko dugu. Arrautzak bitsa egin arte irabiatuko ditugu, eta gero, esnea eta esne kondentsatua gehitu. Irabiatuko dugu eta, azkenik, gaztainak botako ditugu. Irabiagailua erabilia nahasiko dugu. Ondoren, nahasia moldera botako dugu eta labe berora, 180 gradutan, sartuko dugu harik eta flana egiten den arte. Orratz bat sartuta jakingo dugu noiz dagoen eginda.



Maite Lekerika

## Alberjina-, okela- eta ziza-moldea



### Osagaiak (lau lagunentzat):

- 2 alberjina (azala kendua eta txikitua)
- Kipula bat (txikitua)
- 3 berakatz-atal (txikitua)
- Piper gorri bat (txikitua)
- 150 g txahalki (txikitua)
- 150 g txerriki (txikitua)
- 4 arrautza
- Olio
- Gatza


### Saltsa egiteko:

- Kipula txiki bat
- 200 g ziza
- Edalontzi bat salda
- 100 ml esnegain
- Olio
- Gatza

### Prestetako area:


Kipula eta berakatz frijituko ditugu olio-zurrusta batean eta su ez-tian. Piperri, alberjina eta zizak gehituko ditugu. Horiek eginda dau-denean, okela gehituko dugu, eta arin erregosi. Saltsa egiteko, kipula zerrenda mehetan egosiko ditugu, eta olio apur batean erregosi. Zizak gehitu, eta horiek ere erregosiko di-tugu. Salda eta esnegaina botako di-tugu, eta su ez-tian egosi. Gatza bota, eta irabiatuko dugu.

Bestalde, arrautzen gorringoak zartagin batean frijituko ditugu, su ez-tian eta estalkia ipinita. Plater bakoitzean sukaldeko aro bat ipiniko dugu eta barrura hasierako nahasia botako dugu. Aroak kendu, eta nahasien gainean gorringo bana ipiniko dugu. Azkenik, saltsa beroa-ekin estaliko ditugu.



SARRIKOLA  
OGITEGIA

Euskal pastela  
Baserriko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



**SANTI MAMI**  
ALBAITARITZA

Elena Lombana (elk.553)  
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215  
10:00-14:00 / 16:00-19:00  
(hiltzordua eskatu behar da)



**PATXI**  
KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA  
Nafarroa Garaia | Euzkadi 4 | 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 530 037 | info@patxi.coop | www.patxi.coop

L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)  
946 522 857



**OAKLAND**  
ENGLISH

a: www.cdn.foodandwinespanol.com



Ikastegi homologatua  
**LARRABETZU  
MUSIKA ESKOLA**

**ZORIONAK ETA  
URTE BERRI ON!**

Errebale, 7 behea  
94 455 70 66




Urte  
zoriontsu  
eta  
euskalduna  
opa dizue

**arrekikili**  
urte berri on!

Larrabetzuko euskara elkarteak



X Koltza Plaza, 2 - 4.D  
48160 Derio (Bizkaia)  
Tel: 944 54 27 19

**Estudios 10** Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behea  
48160 Derio (Bizkaia)  
Tel: 944 54 50 13

**FOTERI TABERNA**

Andra Mari Kalea, 22  
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia



jarraitu 

**BILZA**  
ELEKTRIZITATEA  
ARGIZTAPENA

Larrabari ibilbidea 1, behea  
48160 DERIO  
669 51 63 11 / 94 474 46 29  
bilzaelectricidad@gmail.com




**IRUSTA TABERNA**  
EGUNEROKO MENUAK  
eta GAUEZ  
MUSIKA ETA PARRANDA

Etxean gura doguz Gabonetan!

LARRABETZU  
Tel.: 94 455 84 77

Moro's Pub



Ane Aretxabaleta

ile-apaindegia  
aurretiko hitzordua

9 4 4 5 4 3 5 8 0

Gorbea 8, Derio 48160

**TXORIERRIKO AEK** ■ euskaltegia

**Zorionak eta urte berri on!**

Eutsi euskaraz berba  
egiteko konpromisoari

Gorbea kalea, 5  
48160 Derio  
944 543 967  
607 59 87 94  
txepetxa@aek.eus



**ETORKI TABERNA**

Eguneroko menua  
Asteburuetan menu bereziak

Andra Mari Kalea, 1  
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU  
(Bizkaia)



## Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.  
a: [www.onlykidsonly.com](http://www.onlykidsonly.com)



## Gomendioak

### LITERATURA: NAGUSIAK

–*Agur, maitea, ikusi arte* (Txalaparta).  
Massimo Carlotto. Itzultzailea:  
Koldo Biguri Otxoa de Eribe.  
–*Dortokaren begirada* (Erein), Jon  
Arretxe.  
–*Bibliomania* (Denonartean),  
Gustave Flaubert.  
–*Hiri zuriaren isiltasuna* (Alberdania),  
Eva García Sáenz de Urturi.

### LITERATURA: GAZTEAK

–*Zerak* (Denonartean), Yolanda  
Arrieta Malaxetxebarria.  
–*Jacob. Gaueko langilea*  
(Txalaparta), Matz- Alexis Nolent.  
Ilustratzailea: Léonard Chemineau.  
Itzultzailea: Bego Montorio  
Uribarren.  
–*Katta ilargirantz* (Elkar), Miren Agur  
Meabe.  
–*Nur eta zirku miragarria* (Erein), Toti  
Martínez de Lezea. Ilustratzailea:  
Ivan Landa.

## Sudokua

			2		7			
								9
				7				1
8		5	3					
	5		6					
7						9	3	
9			5		1	8		
3		2						
2		7	1			6	5	

2	4	8	7	1	9	3	6	5
3	5	1	2	6	8	9	4	7
6	7	4	3	5	2	1	8	
7	6	4	1	8	2	5	9	3
1	3	5	9	7	6	4	8	2
8	6	2	5	4	3	1	7	6
4	2	3	6	8	9	7	6	5
6	1	7	3	5	4	8	2	9
5	8	9	6	2	1	7	3	4

**yedra floristas**

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia  
Telefona: 94 453 14 57 - [yedrainterflora@hotmail.com](mailto:yedrainterflora@hotmail.com)

**TXORIERRI Inmobiliaria**

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia  
Tel./FAXa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11  
[txori-erri@euskalnet.net](mailto:txori-erri@euskalnet.net)

*karreganatik gertu*

ABIOLKULARITZA - TASAZIOA  
ALOKATZEAK - ESKUALDATZEAK  
SALEROSKETAK  
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

**Alaia fruta-denda**

Etxez etxeko zerbitzua  
Bertoko produktuak

Tallera, 5  
48170 Zamudio  
94 485 05 85



**Arteaga ESTANKOA**

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio  
Tel: 94 454 15 41  
estancoderio@gmail.com

**tximintx**  
KOMUNITATEA

Gabonetan be **EUSKARA AHOAN!**  
Gozatu euskaraz!

**Derio**

**SUGOI TABERNA**  
Byron

**smile**

628 77 30 17  
Goiko kalea, 2 behe  
Derio (BIZKAIA)

WiFi

**Zorionak eta Urte Berri On**

**Liliak**  
Loradenda

www.liliak.net  
facebook: liliak loradenda  
amaiarementeria@euskalnet.net

Erdiko Kalea, 2 • DERIO  
94 454 12 23

**electricidad derio** **elektrizitatea**  
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

Proiektuak eta  
material elektrikoaren salmenta

Ugaldeguren ind. 1, 5 pab. 12 B DERIO  
t: 944 543 148

**Imaz**  
**TABAKOAK**  
EXP.:002

Opariak eta osagarriak  
Puruak grabatzea  
Mobilak kargatzea  
Barik txartela kargatzea

Goitea, 6 | 48160 Derio | 94 454 07 69



Zorionak eta  
urte berri on!

**TXORIERRIKO MANKOMUNITATEKO UDALAK**

DERIO

LARRABETZU

LEZAMA

LOIU

SONDIKA

ZAMUDIO



"Gertatu zana oroitu behar dogu aldiro-aldiro,  
horrelakorik aurrerantzean, gerta ez daiten barriro."

**LARRABETZU, GURE OROIMENA BERRESKURATZEN.**

01 **URTAILA** URTARRILA

02 **ZEZEILA** OTSAILA

03

09

30 *Hareti txupada*

05 *Hareti txupada*

3	4	5	6	7	8	1
10	11	12	13	14	15	2
17	18	19	20	21		3
24 / 31	25	26	27			4

7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28						

**urte barri on!**  
udal egutegiak udaletxean eta liburutegian

